

## BORROKAREN ATARIAN

Edu Lartzunguren | DONOSTIA

**E**makumeek aurpegia es-talita daramate, lapur-rrak eskua moztuta zigortzen dituzte eta adulteriogi-leak hil arte harrikatzen. Ez gaude, ordea, talibanak agintean diren Afganistanen edo beste *estatu gaizkile* batean. Estatu Batuen herrialde adiskide batean gaude, Saudi Arabian, eta Xaria —lege islamikoa— da indarrean. Mendebaldeko indarrek Saddam Husseinen diktadorearen atzaparretatik *askatu* zuten Kuwaiten ere antzeko legeak daude indarrean Golkoko Gerraren ondoren ere.

Nola argitu, ordea, fundamentalista lagun/fundamentalista etsai kontraesan ulerkaitza?

Richard Labeviere Estatu Batuen eta mugimendu islamistaren arteko harreman estua iker-tu duen kazetari suitzarrak fundamentalisten borrokaren azken urteotako historiaren hiru unerik funtsezkoenak azpimarratu ditu *Terrorearen Dolarrak* liburuan: Afganistango gerra —EEBBek islamismoa sobietarren aurka bihurtu zutenean—, petrolioaren sukarrak —EEBBek islamismoa beren erregai beharren mesedetara erabili zutenean— eta Nasser sendiaren gainbehera —EEBBek islamismoa nazionalismo arabiarren aurka erabili zutenean—, alegia.

Labevieren arabera, 1930eko hamarkadan Saudi Arabian erabili zuten jokabide bera jarri zuen indarrean Etxe Zuriak Afganistanen: leinuen arteko ezinikusia zein fanatismo erlijioso bultzatu, petrolio interesak zaintzeko.

### Errege petrolio eta petrolio erregeak

Estatu Batuetako gizartean erabateko baldintza bihurtu da petrolio azken hamarkadotan. Garraioek jaten zuten 1990ean kontsumoaren %60 —ibilgailu pribatuek %42—. Estatu batuarren kultura eta psikologia ezin dira petrolio kontsumo honetatik bereiztu: petrolio hornidura arriskuan jartzea *bizimodu amerikarra* mehatzatzea da.

Munduko petrolio ekoizlerik handiena den Saudi Arabiaren egonkortasuna nazio interes bilakatu zitzaizen EEbBei II. Mundu Gerran —beste hornitzaileak Japoniaren menpean baitzeuden—. Munduko petrolio erretserben %26 duen herriaren agintean den monarkiaren *segurtasuna* ziurtatzea eskaini zioten EEbBek Saud sendiari, petrolioaren truke.

Herritarren artean islamismoa bultzatuta, berriz, Golkoko monarkietako buruak matxardan harrapatu nahi zituen Washingtonek, beren boterea gor-



TIMOTHY A. CLARY / AP

**EMIRRA ETA OPARIAK.** New Yorkeko alkate Rudolph Giuliani Polizia Departamenduko kapela bat ematen Qatarko emir Hamad Bin Khalifa Al Thani. Emirrak bi milioi dolarreko laguntza eman du biktimentzat.

# Petrolio erregeak suaren beldur

**GOLKOKO MONARKIAK ATAKAN.** Herritarrek EEbBei dien ezinikusia eta Washingtonek azken hamarkadotan sustaturiko islamistek kinka larrian jarri dituzte petrodolarren sendiak



### Kuwait

Estatu Batuekin eskuz esku lan egiteko prest dago Mendebaldeko koalizioak 1991. urtean Iraken inbasioetik askatu zuen herrialdea.

### Saudi Arabia

Talibanekin harremanak berriki hautsi ditu munduko petrolio ekoizlerik handienak. EEbBei beren aire espazioa uzteko zalantzak ditu. Ez du nahi beren lurraldetik Afganistanen aurkako erasoak abiatzea.

### Bahrain

Gobernuak laguntza agindu die Estatu Batuei. EEbBen 5. Itsas Armadari egoitza ematen dio.

### Arabiar Emirerri Batua

Talibanen ezagutzari uko egin diote. "Terrorismoaren aurkako borroka" eman beharreko laguntza Israelen eta palestinarren arteko gatazka konpontzearekin lotu dute.

### Oman

Tropak eskaini ez arren, Erresuma Batuko Armada ariketa militarrik egiten ari da bertan.

### Qatar

Emirrak bi milioi dolarreko laguntza eskaini dio World Trade Centerreko biktimen alde dabilen fundazioari.

duenez, Carterrek 1979ko uztailean sinatu zuen mujahidinak legez kanpo laguntzeko lehen agindua.

### Iraganeko akatsetatik ikasten

Golkoko Kooperazio Batzordean biltzen diren herriek —Saudi Arabia, Kuwait, Bahrain, Qatar, Arabiar Emirerri Batua eta Oman— ez dute 1990. urteko akatsa berriz egin nahi. Iraken aurka eraso gauzatzeko beren lurraldeak EEbBetako Armadaren esku jarri zituzten orduan, Washingtonek Palestinako arazo konponduko zuela aginduta.

Oraingo honetan, Afganistanen aurka egiteko Al Kharj basea erabiltzea ukatu die EEbBei Saudi Arabiako Gobernuak. Hainbat adituren arabera, berriz, eskatzen zaiena egiteko prest daude saudiar arabiarrek, baina bi baldintza jarri dizkiete EEbBei: egiten dutena isilpean egiteko eta estremistak kontrolatzen laguntzeko.

Golkoko herrialdeetako kalean, bitartean, Palestinako afe-rak EEbBen aurka pizturiko gorrotoa bertoko agintarien aurkako sua bihurtzen jarraitzen dute islamistek.

detzeko laguntza ezinbestekoa bilakatu.

Robert Gates CIAko buru ohiak bere memorietan azaldu zuenaren arabera, sobietarren inbasioa gertatu baino sei hila-

bete lehenago hasi ziren EEbBetako zerbitzuak Afganistango mujahidinak laguntzen. Orduan Carter presidentearen segurtasun aferetako aholkulari zen Zbigniew Brzezinskik esan

## LABURRAN

## INDIA

### Hegazkin bat bahitu dute Bombayn eta New Delhin lur hartu du

«Aliance Air» konpainiako hegazkina bahitu dute Bombaytik abiatu eta berehala, eta New Delhin lur hartu du Indiako Star TV telebista kateak jakitera eman zuenez. Barruan 54 bidaiari zihoazen eta guztiak onik zeuden New Delhin hegazkinak lur hartu zuenean, baina barruan jarraitu zuten Indiako hiriburu lur hartu zuenean. Atzo azken orduko albisteen arabera, poliziak zonaldea babestu egin zuen eta bahitzailerkin haremanetan jarri zen beren eskaerak entzuteko.

## ESTATU BATUAK

### 'Bioterrorismo'-aren kontrako alerta zorrotz du Washingtonek

Txerto eta botika biltegiak handitu, sendagileak prestatu eta osasun zentroetan zaintza zorrotzko dute EEbBetan *bioterrorismo*-aren mehatxuari aurre egiteko, Tommy Thompson Osasun ministroaren arabera. Gai biokimikoen bidezko erasoak edozein unetan gerta daitezkeela esan zuen astelehenean John Ashcroft Justizia ministroak.

## EUROPA

### Mugarik gabeko operazio baten aurka azaldu dira Justizia eta Bakea Batzordeak

Estatu Batuek Afganistanen aurka egin dezaketean «operazio militar mugagabe ororen» aurka zeudela esan zuen atzo Europako Justizia eta Bakea Batzordeetako Konferentziak. «Herrialde aberatsek duintasunez bizi-tzeko bitartekoak ez dituzten herriekiko harremanak aldatzea da eraso eman behar zaien erantzuna», Budapesten bilduriko 27 herrietako batzordeek plazaraturiko agiriaren arabera.

## FRANTZIA

### Ekintzak planifikatzeko parte-hartze zuzena eskatu du Jospinek

Estatu Batuek burutuko dituzten erasoekin bat egiteko «helburu politikoak zehazteko eta ekintzen plangintzan» parte hartze-zuzena eta erabatekoa eskatu zuen atzo Lionel Jospin Frantziako lehen ministroak. Frantziako aire espazioa estatubatuarrei irekitzeko «alde aurretik ohartarazte» baldintza ezarri diela gaineratu zuen.